

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Osasunak 760.410 euro jarriko ditu kontsultategien funtzionamendua finantzatzeko 2018an

Laguntzak, guztira, 232 zentrok eskuratuko dituzte. Laguntzak moduluka banatzen dira instalazioen tipologiaren eta azaleren arabera.

Osteguna, 2018.eko urriak 11

Foru Gobernuak 760.410 euroko gastua egiteko baimena eman du Nafarroako udal-jabetzako tokiko kontsultategien eta kontsultategi osagarrien funtzionamendurako. Horrela, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak erabaki du toki-erakundeei zuzeneko diru-laguntzak ematea, eta hori [gaur argitaratu da NAOn](#).

Diru-laguntza jasoko dute kontsultategi medikoa edo kontsultategi osagarria duten Nafarroako toki-erakundeei, eta, Osasunari buruzko 10/1990 Legean ezarritakoaren arabera, horiek kontserbatzea eta mantentzea bermatzeko betebeharra dutenek. Baliabideak instalazio-motaren eta horien azaleraren arabera emango dira; guztira, 232 zentrok jasoko dute laguntza.

Diru-laguntza lokaletako mantentze-gastuak eta funtzionamendukoak (telefonoa, gasa, elektrizitatea, garbiketa, e.a.) finantzatzeko izango da.